

Hamatarpi

2018ko negua



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala



**ARABAKO MUS TXAPELKETA, ZIGOITIAN
IRAKURKETA KLUBA, BERRIRO MARTXAN!**

MARTXA ONEAN DOA AUZO KONPOSTAJEA

BUKATU DA BENGOLARRAKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA

MAIATZAREN 6AN, ERABAKITZEAREN ALDEKO HERRI GALDEKETA

BISITA GIDATUAK, ABADELAUETAREKIN ETA ISIDRO SAENZ DE URTURIREKIN

AZKEN HAUTESKUNDEAK: PARTE-HARTZE EZBERDINA ETA AURRERAPEN TXIKIA BERDINTASUNEAN



Hemen eta orain

- 03 Eskerrak Zigoitiko herriari, Jon Barcenaren bilaketan eskainitako laguntzagatik
- 04 Martxa onean doa auzo konpostajeta
- 06 Kontzejuetako hauteskundeak: parte-hartze ezberdina eta aurrerapen txikia berdintasunean
- 07 Bukatu da Bengolarrako eraberritzea definitzeko prozesu parte-hartzailea
- 08 Maiatzaren 6an, erabakitzearen aldeko herri galdeketa
- 09 Irakurketa Kluba, berriro martxan!
- 10 Bisita gidatuak, *Abadelaueta*rekin eta Isidro Saenz de Urturirekin
- 12 Arabako Mus Txapelketa, Zigoitian

Kolaborazioak

- 13 Eguneko Arretarako Landa Zentroko berriak
- 14 Liburutegitik, maitasunez. Javier Arbulurekin

Staff

HAMAZAZPI

Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2018ko negua

Azala: *Abadelaueta* Elkarte Etnografikoa eta Alicia Villar Odria. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_ 945 46 40 41 · www.zigoitia.eus · zigoitia@zigoitia.eus

Koordinazioa:

Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

Erredakzioa:

Idoia Perez Gallardo · Rosa Ortiz de Mendivil

Diseinua eta maketazioa: www.hirudesign.com

Imprimaketa: www.graficasirudi.es

Ale kopurua: 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08

Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:

www.facebook.com/hamazazpialdizkaria

Eskerrak Zigoitiko herriari, Jon Barcenaren bilaketan eskainitako laguntzagatik

Udalaren izenean, gure doluminak adierazi nahi dizkiegu Jon Barcenaren, pasa den abenduaren 30ean Gorbeian desagertutako gaztearen, familiari eta lagunei. Aldi berean, egun triste horietan adierazitako solidaritatea dela eta, gure esker ona helarazi nahi diegu Zigoitiko herritarrei; bai bilaketan lagundu zuten lagunei, bai frontoian salda, kafea eta beren etxetik ekarritako elikagaiak banatuz lagundu zutenei. Azkenik, Berrizko herritarren partetik, Roland Isoird bere alkatearen bitartez, eskerrak eman nahi dizkizuegu. Eta, bereiziki, Barcena-Amezua familiaren partetik; horrela adierazi zioten Jonen amak eta aitak gure alkateari, joan den otsailaren 2an gaztea agurtzeko ekitaldian.

JON BARCENA AMEZUA

*“Zure bizipoza
gera dadila
betirako
gure barnean”*

AGUR EKITALDIA

Barikuan, otsailaren 2an,
arratsaldeko 19:00etan
Berrizko frontoian



2018ko Zergadunen Egutegia

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA

Borondatezko epea:
2018-03-01 _ 2018-04-30
**Helbideratutako ordainagiriak
kobratzeko data:**
Apirilaren hasieran

LANDA HIGIEZINEN ZERGA

Borondatezko epea:
2018-05-01 _ 2018-06-30
**Helbideratutako ordainagiriak
kobratzeko data:**
Ekainaren hasieran

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

**INFORMAZIOA,
ZERBITZUAK ETA GESTIOAK**
Udaletxea. Telefonoa: 945 46
40 41. Asteleheneetik ostiralera
9:00etatik 14:00etara. Faxe: 945
46 40 52, e-mail:
zigoitia@zigoitia.eus

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak

Ordaintzeko lekua:
Kutxabank eta Euskadiko
Kutxaren bulegoetan.
Internet bidez, web orri
honetan: www.zigoitia.eus
(Nire ordainketa).

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak

Zigoitiko Udalak zuzenean
kudeatuko du ordainketa,
helbideratu den finantza-
erakundearen kontuan.

HIRI ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA ETA EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

Borondatezko epea:
2018-05-01 _ 2018-06-30
**Helbideratutako ordainagiriak
kobratzeko data:**
Lehenengo epea (kuotaren %50a)
– Ekainaren hasieran
Bigarren epea (kuotaren %50a) –
Urriaren hasieran

ZABOR-BILKETAREN TASA

Borondatezko epea:
2018-05-01 _ 2018-06-30
**Helbideratutako ordainagiriak
kobratzeko data:**
Ekainaren hasieran

Martxa onean doa auzo konpostajea

Ondategi-Gopegiko Gurutze Plazara eta inguruetara zabaltzeko asmoa dago



Zigoitiak baditu dagoeneko hondakin organiko ezberdinak biltzeko puntuak, eta bertan sortzen da konposta. 2017ko apirilean Urisoloko etxebizitzetan jarri zen abian auzo konpostaje proiektua, eta izandako harrera eta emaitza onen ondorioz, gero eta leku gehiagotan ari da sistema ezartzen.


Eginiko azken ikerketen arabera, edukiontzi grisera botatzen diren hondakinen % 50 inguru jatorri organikokoak dira eta, beraz, materia konpostagarria. Hori dela eta, Zigoitiko Udala pixkanaka urratsak ematen ari da hondakinen bilketa- eta kudeaketa-eredu jasangarriarantz. Horrela sortzen da auzo konpostaje proiektuaren ideia. 2017ko apirilean Gopegiko Urisolo etxebizitzetan hondakin organikoen bilketarekin hasi zen. Udalerriko garaiera handiko etxebizitza bakanak izateak, eta lorategi komuna edukitzeak, konpostajea bertan jartzearen erabakia ahalbidetu zuen. Egun, etxebizitza hauetan bizi diren 20 familietatik 16k hartzen dute parte proiektuan. Ez da, baina, gure udalerrian dagoen konpostaje gune bakarra. *Gorbeia Eskolak* ere hilabeteak daramatza bertako jantokian sortutako janari-hondakinak konpostatzen. Proiektu hauetako duela gutxi, 2018an hain zuzen ere, martxan jarritako beste bi gehitu zaizkio; alde batetik, Zaitegiko Kontzejuan, herrian bertan auzo konpostajerako egokitutako zonaldea; bestetik, EALZ-n (Eguneko Arretarako Landa Zentroan)

janarien prestaketan sortutako hondakin organikoak konpostatzen ari dira jada. Esperientzia horiek izandako emaitza onak ikusita, birziklatzeko eta konposta sortzeko gune gehiago jartzea da asmoa. Momentuz, Gopegiko Ondategiko Gurutze Plazan eta inguruetan beste gune batzuk jartzeko aukera mahai gainean dago, hori bai, aurretik bertako bizilagunekin adostu eta gero.

Konpostajea: zertan datza?

Konpostajea materia organikoaren degradazio-prozesua da (edo hartxidura prozesu biologiko kontrolatua), modu kontrolatuan eginikoa eta emaitzatzat konpost deituriko ongarri naturala ematen duena. Prozesu honetan tenperaturak, hezetasunak eta karbono-nitrogenoaren arteko erlazioak era zuzenean eragiten dute eta aldagai hauen gaineko kontrol zorrotz eta zehatzak mantendu behar dira.

Udala bera da oinarriko mantentze-lanez arduratzen dena, hala nola konpostagailuko nahastea hezatu eta aireztatzeaz. Herritar erabilzaileen zeregina, ordea, askoz errazagoa da.



Lehenik eta behin, konpostagailura bota behar dira hondakin organiko moduan sailkatutakoak. Ondoren, material egiturazaila, hau da, txikitutako inaste soberakinak, konpostagailu ondoko tiraderan topa daitezkeenak. Erabilzailea, material egiturazailaz hondakin organiko guztiak estaltzeaz baino ez da arduratu behar, hondakinak begi bistan gera ez daitezzen.

Nora doa sortutako konposta?

Lortutako konposta ongarri naturala da eta, beraz, kalitate handikoa. Konpostaje prozesua kontuan harturik, eta auzo proiektua den heinean, lortutako konposta, lehenik eta behin, proiektuan parte hartu dutenei eskaintzen zaie. Konposta soberan geratzen bada, udalarentzat izango litzateke, lorategi edo lur-sail publikoetan erabil dezan.

Norbanakoen kasuan, eskuratutako produktua landareentzako ongarri natural gisa erabil daiteke loreontzietan, baita baratzeetan ere, ongarri natural modura. *Gorbeia Eskolaren* kasua da, hezkuntzako zentroaren konpostajearen ondoan dauden baratzeetan sortzen dena.



Auzo proiektua

Konposta egiteko asmoz ekimenak martxan jartzeko, hondakinak era arduratsuan kudeatzaren garrantziaz sentsibilizazio eta kontzientziazio lanak abiatu dira, ingurugiroan ahalik eta inpaktu txikiena eragiteko. Horretarako, beste jarduerak batzuen artean, hitzaldi informatiboak eta konpostatze ikastaroak antolatu dira. Proiektu ezberdin hauetan parte hartzeko, udaletxean eskaera betetzea besterik ez da egin behar.

Edukiontzia erreta Etxaguenen

Pasa den urtarrilean, Etxaguenen, zabor-edukiontzi bat erre zen. Antzaenez, norbaitek itzali gabeko txingar hautsak bota zituen eta ontziak su hartu zuen.

Hori dela eta, Gorbeiko Inguruetako Partzuergoak, Gorbeialdeko Kuadrillan zabor bilketaz eta kudeaketaz arduratzen den organoak, edukiontziak arretaz erabiltzeko beharra gogoratu digu. Horrelako zerbait gertatzen den bakoitzean, arriskua eta gastua ekartzen baitu Zigoitiko udalerrientzat.

Beraz, herritar guztiei zentzuz jokatzeko eskatzen diegu, guztion baliabideak zaindu eta ezbeharren bat gerta ez dadin.

2017ko kontzejuetako hauteskundeen emaitzak

Parte-hartze ezberdina eta aurrerapen txikia berdintasunean

Dakizuenez, pasa den azaroaren 26an kontzejuetako hauteskundeak egin ziren Araban. Jarraian, prozesua jarraituz, Zigoitiko herri guztiek beren ordezkariak – administrazio batzarretako lehendakariak eta bokalaki-izendatu zituzten, Etxaguenekoek izan ezik. Herri horretan aukeratutako pertsonak dimititu egin zuten, eta Hamazazpiren ale honen itxiera orduan (otsailaren 14an), oraindik ez zegoen ordeko izendapenen berririk.

Parte-hartzeari dagokionez, oso ezberdina izan da. Herritarren % 40k eman zuen botoa (Zigoitian 1.390 daude errolatuta, eta bakarrik 556 boto-emaile egon ziren). Parte-hartzerik handiena Eriben egon zen. Bertan 55 pertsona daude errolatuta eta 40k eman zuten botoa; hau da, % 72,73ak. Beste muturrean Gopegi aurkitzen dugu; 188 dira errolatuak eta bakarrik 46k bozkatu zuten. Oso parte-hartze eskasa, %25era ailegatzen ez dena (beheko koadroan herrien datuak ikus ditzakezu).

Berdintasun arloan, aipagarria da gertatu den

aldaketa: 1980tik hona hiru herritan - Etxabarri-lbiñan, Letonan eta Ondategin- inoiz ez zen emakumerik hautatu; azken hauteskunde hauetan, aldiz, Etxabarri-lbiñan eta Ondategin emakume bana aukeratu dute eta bi herri horietako administrazio batzarretan andrazko ordezkari dago jada. Azkenik, azpimarratzekoa da Zigoitiko 16 kontzejuetatik bakarrik 2tan daudela emakumezko lehendakariak, Berrikanon eta Maurgan. Gainontzekoetan, kontzeju buruak gizonak dira. Eta XXI. mendean 8 kontzejutako administrazio batzarretan ez dagoela emakume bakar bat ere (ez lehendakariak, ez bokalik).

Zigoitiko Udalak, bere aldetik, eskerrak eman nahi dizkie hauteskundeetan parte hartu zuten herritar guztiei. Aldi berean, euren herrietako interesak defendatzeko hautatuak izan diren pertsona guztiak animatu nahi ditu, eta bere laguntza eskaini eginkizun hori bete ahal izateko. Gainera, gehitu du 'berdintasuna lortzetik oso urrun gaudela, baina bidean hasi garela eta aurrera pausuak ematen ari garela'.

2017KO KONTZEJUETAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK PARTAIDETZA DATUAK:

	ERROLDATUAK	BOTO-EMAILEAK	% PARTAIDETZA
OKOIZTA	57	37	64%
APODAKA	131	51	38,93%
BERRIKANO	116	29	25%
BURUAGA	38	26	68,42%
ERIBE	55	40	72,73%
ETXABARRI-IBIÑA	261	67	25,67%
ETXAGUEN	72	29	40,28%
GOPEGI	188	46	24,47%
LETONA	35	18	51,43%
MAURGA	64	42	65,63%
MENDAROKETA	42	19	45,24%
MURUA	115	36	31,3%
OLANO	17	9	52,94%
ONDATEGI	134	68	50,75%
ZAITEGI	32	22	68,75%
ZESTAFE	33	17	51,52%

Info gehiagorako: emaitza guztiak eta partaidetza datuak Arabako Foru Aldundiko webgunean ikus ditzakezu. Eta baita hurrengo estekan ere: <https://goo.gl/YFgNZT>

Gure udalerrria guztion artean eraikiz

- Arrakastaz bukatu da Bengolarrako eraberritzea definitzeko prozesu parte-hartzailea
- Eraikinaren erabilerak adostu dira: ostalaritzako gunea, kiroleterako solairua eta premiazko egoeretan erabiltzeko etxebizitza



2017a pentsatzeko, ideiak eztabaidatzeko eta proposamenak adosteko urtea izan da. Eta 2018a proiektuaren definizioan aurrera jarraitzeko unea izango da. Urtarrilean bukatu da Bengolarrako eraberritzea definitzeko prozesu parte-hartzailea eta, udaletik azaltzen duten moduan, 'esperientzia oso gogobetegarria' izan da. 'Lana planteatu da fase ezberdinetan' (Hamazazpi aldizkariko aurreko alean aurki dezakezu informazioa), eta guztietan 'nabarmena izan da Zigoitiko herritarren inplikazioa', laburbiltzen dute arduradunek. 'Airean geratu dira gauza batzuk, aztertu beharko diren eskaerak sortu dira baina, batez ere, azpimarratzekoa da guztion artean adostu dugula Bengolarrarako nahi duguna'. Hobekuntza nagusiei dagokienez, igogailua jarriko da; beheko solairua egokituko da taberna, jangela, terraza, dutxak, aldagelak eta igerilekuetako gainerako hornikuntzak kokatzeko. Lehenengo solairua kiroleterako erabilerarako prestatuko da. Eta bigarrena bestelako erabilererarako utziko da, beti ere etxebizitza bezala mantenduz, behar izanez gero larrialdi-egoerei aurre egiteko. Mugimendu hauekin, Ekonomatoa prefabrikatuetara joango litzateke. Azaldutako planteamenduan oinarrituta, udalak orain erreforma-proiektua idatzi behar du, onartu eta finantzazioa bilatu, Bengolarrako eraberritzea aurrera eraman ahal izateko.

Zergatik eraberritu Bengolarra?

Lehenik eta behin, indarrean dagoen irisgarritasun araudira egokitzeko. Eta, bigarrenik, instalazioak berritzeko eta hobetzeko. Beharra zegoen lekuan, udalak aukera ikusi zuen; eraikina osorik berritu behar bazen, zergatik ez egin prozesu parte-hartzaile baten bidez? Honela, udal teknikari eta ordezkari politikoekin, herritarrek ere beren iritzia eta proposamenak emateko aukera izango zuten. Eta guztion artean erabakiko zuketan zer egin herri azpiegitura batekin, zeina, gainera, Zigoitian erabilerak handiena dutenen artean dagoen.

Nork hartu du parte?

- udalerriko herritarrek
- Ekonomatoaren Elkartek, Oketa Alai Dantza Taldeak, Gorbea Erretiratuen Elkartek eta Dominizubi Musika Elkartek (parte hartzeko gonbidapena udal elkarte eta talde guztiei helarazi zitzaion)
- Administrazio batzarretako lehendakariak
- udaleko pertsonal teknikoak (Ingurumena, Kultura eta Gizarte eta Kultur Zentroa)
- Bengolarrako esleipendunak
- udal talde guztietako arduradun politikoek

Maiatzaren 6an, erabakitzearen aldeko herri galdeketa



1.500 zigoitiar daude herri galdeketa bozkatzera deituak. Erabakitzearen aldeko *Zubigoitia* elkartetik, emaitzei baino, partaidetzari ematen diote garrantzia: 'galderaren funtsak baino erabakitzeko ariketak berak dauka garrantzi handiagoa'.

Euskal Herrian bada *Gure Esku Dago* izena duen elkarte, hiru printzipiotan oinarritzen dena: herri nortasuna, erabakitzeko eskubidea eta herritarren garaia. Herri berean bizi diren heinean, eta beste hainbat euskal herritan martxan jarritako dinamikari jarraipena emateko beharraz ohartuta, erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimenduaren parte izan nahi zuen zigoitiar talde bat, 2016ko azaroan, erabakitzeko eskubidearen inguruan hausnartu eta dinamika anitz eta parte-hartzaileak burutzeko asmoz biltzen hasi zen. Horrela sortu zen *Zubigoitia* elkarte. Hogei pertsona inguruk osatzen dute eta hamabost egunean behin elkartzen dira. 'Bileretara joaten garen pertsoez aparte, laguntzeko prest dauden lagun gehiago daude', dio Koldobika Diaz de Mendibil Aragolazak, *Zubigoitia*-ko kideak.

Martxoaren 17an data berezia du elkarteak. Izan ere, egun horretan, Bengolarrako frontoian, herritarren aurrean aurkezpen ofiziala egingo dute, eta Zigoitiko herritar oro gonbidatu nahi dute bertara, baita dinamikaren parte izatera ere. Baina ez da hori data bakarra, izan ere, maiatzaren 6an dator egun handia. Orduan egin nahi dute-eta herri galdeketa Zigoitian. Oraindik kontu asko findu gabe badaude ere, *Zubigoitia*ko kideek 'egun berezi, herrikoi, parte-hartzaile, alai eta, batez ere, erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarrikapena egiteko' izatea nahi dute. Orain arte egin diren galderak

ñabardura ezberdinak izan dituzte, baina funtsean herritarrei galdetzen zaie ea euskal estatu burujabe, libre edota independente bateko herritarrak izan nahi duten. Galdeketa funtsa baina, ez da emaitza baiezkua edo ezezkoa den argitzea. Elkartetik, izan ere, emaitzari baino, partaidetzari ematen diote garrantzi handiagoa, demokrazia ariketa moduan planteatzen baitute herri-galdeketa. 'Herri bat gara, eta erabakitzeko eskubidea funtsezkoa iruditzen zaigu gizarteak herritarren norabidean aurrera egin dezan. Erabaki nahi dugu, ez bakarrik lurraldetasunaren inguruan, gizarteko arlo guztietan baizik', diote.

Maiatzaren 6ko herri-galdeketa egia bihurtu dadin, lan handia daukate oraindik aurretik. Momentu honetan, herri-galdeketa babesa emango dioten pertsona bila dabilta, sinadura-biltze prozesu baten buru-belarri murgilduta. Gorbeialdean badira aurretik *Gure Esku Dago* dinamikaren baitan egin diren herri-galdeketa. Pasa den urtean, Legution eta Urkabustaizen egin ziren, eta oraingoan Zigoitari eta Zuiari pasa diete lekukoa, aurten egin ditzaten. Gure herrialdean, *Gure Esku Dago Araba* taldea arduratzen da herri ezberdinen arteko harremana sustatzeaz eta koordinatzeaz.

Contacto: guresku.zigoitia@gmail.com

Twitter: [@Zubigoitia](https://twitter.com/Zubigoitia)

Facebook: [Zubigoitia.gureskudago](https://www.facebook.com/Zubigoitia.gureskudago)

Irakurketa Kluba, martxan berriro!

Guraso eta haurrak elkarrekin liburutegian, ikasteko eta dibertitzeko

Galtzagorri Euskal Literatura Elkarteak kudeatuta, eta 'Bularretik Mintzora' egitasmoaren baitan, **Irakurketa klubaren** 3 saio egin ziren iaz Zigoitian. Gurasoek, euren seme-alabak literatura mundu liluragarrian hasteko baliabideak erabiltzen ikasi zuten, eta haurrek primeran pasa zuten; oso balorazio ona jaso zuen ekimenak, eta horregatik aurten ere errepikatu egingo da. Oraindik ezagutzen ez baduzu, hona hemen gakoak (erantzunak *Galtzagorri* bidez):

IrakurketaZER?

Irakurketa klubak literatur arlo ezberdinak lantzeko txokoak dira: irakurketa, kontaketa, poesia, iragarkiak, aho korapiloak, euskal abestiak, jolasak, album ilustratuak, elkarriketa txikiak...

Nori zuzenduta dago?

Gurasoei eta haurrei. Asmoa da elkarrekin joatea liburutegira. Bertan, *Galtzagorri*ko dinamizatzaile batek zuzentzen du saioa. Programaren helburua bikoitza da: alde batetik, gozamenerako gune bat sortzen da, ipuin eta hitz-jolasekin, haurrek ondo pasatu dezaten; bestetik, gurasoen prestakuntza du helburu. Horretarako, haur eta gazte literatura baliabideak erakusten dira eta kontatzeko moduak azaltzen. Azken batean, helduak seme-alabekin literatura modu autonomoan lantzeko gai sentiaraztea da asmoa.

Zein liburu landu dira?

Saioak 3-6 urteko haurrekin egin ziren, eta oinarritzko liburuak landu: "Begira-begira", "Egizu lo", "Haizak eta haizan", "1, 2, 3, 4", "Maria goikoa", "Bularretik Mintzora", "Urrezko giltza", "Jolas-molas", "Nola dastatu ilargia", "Kezkamuxelak"...

Noiz hasiko da programa berriro?

Saio berriak diseinatzen ari dira. Data, ordutegiak eta gainontzeko xehetasunak jakiteko, galdetu Gizarte eta Kultur Zentroko liburutegian. Haurrak eta gurasoak, eskainitako aukerarekin, hain gustura eta hain eskertuta ikusita, jarraitzeko irrikatan daude!



Irakurketa ekimen gehiago: Ordu Bioleta

Feminismoaren kolorea bioleta da, eta ordu bioleta, berriz, iluntzearen ordua. Ordu horretan, egunaketa gauak elkar besarkatzen duten unean, emakume-talde bat elkartzen da alde aurretik irakurritako liburu bati buruzko iritziak trukatzeko (eleberriak, entsaioak, iritzi artikulak...). Horixe da Ordu Bioletaren abiapuntua; hau da, Laia Eskolak martxan jarri duen irakurle feministen klubarena, hain zuzen. Gure eskualdean, Gorbeialdean, otsailaren 26an izango da aurkezpena, Zuiako Udaletxean, Murgian. Jarraian, maiatzera arte hileko 4. astelehenean egingo da, hainbat herritan txandaka.

Info gehiago: www.laiaeskola.eus

Hogei bat bisita gidatu, Zigoitiko bazterrak eta udalerrriaren historia ezagutzeko

Mendi irteerak **Abadelaueta Elkarte Etnografikoarekin** eta gure herriak ezagutzeko ibilbideak **Isidro Saenz de Urturi**ekin



Argazkiak: **Abadelaueta Elkarte Etnografikoa.**

Zigoitia ezagutzen al duzu? Gehienok badakigu 17 herrik osatzen dutela (hortik dator, hain zuzen ere, aldizkari honen izena); Gorbeialdeko Kuadrillako bigarren udalerrri handiena dela bere 102 km²-ekin, eta bere azaleraren zati handi bat Gorbeialdeko Parke Naturalaren barruan dagoela. Baina inoiz ikusi al duzu mendian errotarri-bilgunerik? Madalenako zuhaitz bereziak miretsi al dituzu inoiz? Edo egon al zara inoiz frankisten frontean? Guztiak dira garrantzia kultural, natural eta historiko handiko lekuak, oso gertu dauden baina ezagutzen ez ditugunak. Batzuetan, beren berri ez genuelako, beste batzuetan, bisitatzeko aukerarik izan ez dugulako. Hori

guztia kontuan hartuta, *Abadelaueta* Talde Etnografikoa, *Akelarrea* aldizkaria argitaratzen duen elkarteak, hainbat gune enblematiko ezagutzeko 12 ibilaldi antolatu ditu 2018an. Mendi irteerak dira, hileroko hirugarren larunbatetan egiteko. Bengolarrako parkina da abiapuntua guztietan, goizeko 9:30etan hasten dira eta normalean 14:30etarako bukatu. Parte hartzeko, abadelaueta@gmail.com helbidean telefono zenbakia edo e-posta utzi behar duzu, eta aurreko astean jakinaraziko dizute aldaketarik-edo dagoen, posta elektronikoz edo whatsapp-ez. Ezin da errazagoa izan. Eta ezta atsegingarriagoa ere. Hori diote, behintzat, lehenengo irteerak egin dituztenek.

Kuadrillak antolatutako bisitak

Gorbeialdeko kuadrillak ere bisita programa interesgarri bat antolatzen du. Kasu honetan, gure ingurua ezagutzeko. Hurrengo hilabeteetan hauek izango dira: martxoan, Aventura park Güeñesen; apirilean, Errioxako upategi batera; maiatzean, Albaola itsa kultur faktoria, Pasai San Pedron. Informazio gehiagorako, kuadrillako telefono zenbakira deitu: 945 43 01 67

ABADELAUETAren MENDI IRTEEREN EGUTEGIA

20-01-2018	GOIKOBIDEA (Manurga, Murua)
17-02-2018	FRANKISTEN FRONTEA
17-03-2018	ERROTARRIAK 1
21-04-2018	SIDERURGIA 1 (Eskaneta, Izua, txabola Nagusia...)
19-05-2018	ZIZKIÑU (Diziplina-batailoia, pagoa, Lekueren txabola, kobazuloak, otsategia, Arrikutz...)
16-06-2018	ERREPUBLIKARREN FRONTEA
21-07-2018	"ZURRUNPOAK" (Ondategi, Letona, Apodaka)
18-08-2018	SIDERURGIA 2 (Ubide, Soko, Landanausi)
15-09-2018	ERROTARRIAK 2
20-10-2018	MADALENA (zuhaitz bereziak)
17-11-2018	ARRATO, San Bitor, herrigunea, Zaldunen kobazuloa
15-12-2018	ZAITEGI, OLANO (tumuluak, San Migel, leizea...)



Argazkiak: **Alicia Villar Odria.**

Gure herriak ezagutzuz

Abadelauetak antolatutako mendi irteerez aparte, bisita gidatuak bultzatzen dituen beste programa bat dago aurten Zigoitian. Oraingo honetan, *Etniker*-ek (euskal ikerketak egiten dituen taldeak), *Manuel Iradier* Elkarteak, berriro ere *Abadelaueta* Elkarteak eta Zigoitiko Udalak antolatu dute ekimena. Proiektuko aurpegiak ezagunena Isidro Saenz de Urturi da, gure udalerrria ondo ezagutzen duen etnografoa eta HAMAZAZPIko kolaboratzailea. Guztien artean hainbat herri-ibilbide diseinatu dituzte, herrietan zehar abiatzen direnak, beren historia eta bertan bizi



izan ziren pertsona xebleena ezagutarazteko. Martxoaren 11an, esate baterako, Olano herria bisitatzeko aukera egongo da, bertako eliza ikusteko (erretaula famatua, bataiarria, sakristia...) , dorretxea, zubia... Udaberria hasita, Zaitegin (apirilaren 8an), Letonan (maiatzaren 13an) eta Apodakan (ekainaren 10ean) bisitak egingo dira. Irteera bakoitzak 2 ordu t'erdiko iraupena eta 2 €ko prezioa du (18 urtetik gorakoek ordaintzen dute bakarrik). Eta aldeztu aurretik izena ematea behar da Artzegein, Bengolarra Tabernan edo Gizarte eta Kultur Zentroan.

ORDAGOko txapelketa

Otsailaren 24an egingo da, lehenengo aldiz Zigoitian, Arabako Mus Txapelketa



36 bikote lehiatuko dira Arabako Txapelketa bila.

Bere jatorria ez dago oso argi, baina badirudi musa Euskal Herriko joko bat dela. Izan ere, Aita Larramendi filologo eta jesuitak, aipatu zuen jada 1.745ean bere Hiru Hizkuntzako Hiztegia (euskara – gaztelera - latina). Hain urrun joan gabe, Zigoitian ohikoa da udalerriko txapelketa, abendutik urtarrilerako 5 igandetan jokatzeko dena, hain zuzen ere. Gizonak zein emakumeak lehiatzen dira. Eta, gero eta gehiago, gazteak ere bai: 16 urtetik 80ra arteko jokalariek dira, eta duela gutxi mutil gaztez osatutako 3 bikote ere hasi dira.

Era bat da, nolabait, Zigoitiko negu luzea arintzeko, eta baita partidak egiten diren herri eta tabernak animatzeko ere: Bengolarra Ondategin; Artzegei Gopegin; Errekaxo Okoiztan; Ganbrinus taberna Etxebarri-Ibiñako Merkataritza Gunean eta Biltoki, herri berean. Gainera, 2018an, zaletasun guztien poza eta harrotasuna pizteko, Zigoitian jokatu da Arabako Mus Txapelketa.

Giro dotorea

Gure udalerrian egiten den lehenengo aldia izango da. Baita Kuadrillan, Gorbeialdean ere. Beraz, gogo handia dago. Hitzordua otsailaren 24an, larunbatean, Artzegei tabernan izango da. 36 bikote – gizonezkoak,

emakumezkoak eta bikote mistoak- lehiatuko dira, norgehiagoka baino gehiago festa izango den ekitaldian. Goizeko 10etan hasiko da txapelketa eta, partidaz gain, *triki-poteoa* eta herri bazkaria ere egingo dira Gopegin. Bertan bilduko dira udalerriko eta Arabako hainbat bazterretatik heldutako lagun asko. Hori dela eta, antolatzaileek espero dute egun ederra pasatzea, giro dotorean murgilduta; halaxe da, behintzat, musean aritzen diren guztietan, kontatu digutenez. 'Nerbioak egongo dira, jakina, baina lehiakidetasun osasuntsu batean', esan digu Javier Barreñak, antolatzaileetako batek eta, Jorge Viterirekin, Arabako txapelkun denak (Artziniegan irabazi zuten iaz).

Arabako hitzordua pasa ondoren, jokalarionen Euskal Herriko txapelketan hartuko dute parte, martxoaren 10ean Lapurdin. Eta, berriro ere etxean, uda partean, Zigoitiko Txapelketa jokatu da, Eguzki Jaian. Aurten jokalaririk bakoitzak bakarka emango du izena eta gero, zozketa baten bidez, osatuko dira bikoteak, lehiaketa bizigarria egiteko. Badago musik?

Info+ Mus whatsapppeko taldean, informazioa partekatzeko, txapelketetan izena emateko... T_ 609 62 04 14

Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentrotik, EALZtik, informazioa

Udalerriko txikienekin topa egiteko - eta gozatzeko! - aukera paregabea

Belaunaldi ezberdinen arteko gozogintza tailerra, maitasuna eta errespetua sukaldatzeko

Azken Eguberrietan Gizarte eta Kultur Zentroko jardueretan parte hartzen ari ziren umeak eta gure Eguneko Arretarako Landa Zentroko erabiltzaileak elkartu ziren, egun batzuetan. Zergatia? Ba, hona ailegatu zelako umeekin etxeko gaitetak egiteko tailer batean parte hartzeko gonbidapena, hain justu.

Eguneko Arretarako Zentroan belaunaldi ezberdinen arteko topaketa bat egiteko aukera polita zela baloratu eta eskaintza egin genien erabiltzaileei. Parte hartzera animatu ondoren, zaintzaileen taldea prest azaldu zen tailerraren antolaketan eta lorpenean laguntzeko, nahastea oso aberasgarria izango zelakoan: helduen talde osoak ordu batzuk partekatuko zituzkeen umeekin, bi taldeentzako oso aberasgarria izango zen jardura batean.

Lehenengo egunean, gure zentroko erabiltzaileak 'maisur oregileak' izan ziren; umeek, bitartean, lagundu eta ikasi egiten zuten. Bigarren egunean, masari forma emateko eta

labera sartzeko momentua heldu zen; txikien gaitak politik moldatu zituzten eta helduak labeaz arduratu ziren. Azken egunean, ederki gozatu zuten guztiek, landutako gaitetak txokolate beroarekin hartuz, familia- eta jai-giro onenean.

Parte hartu zuten guzti-guztien harrera hobezina ikusita, ideia berriak prestatzen ari dira jada datorren eguberrietara begira. Eta, hemendik, eskertu nahi dugu guran pentsatzea Zigoitiko Gizarte eta Kultur Zentroko jarduerak antolatzeko orduan. Horrela jokatzuz, gure erabiltzaileentzat oso garrantzitsuak diren gauzak lortzen baitira: pertsona helduak beren inguruan ikusaraztea, adin ezberdinetako beste talde batzuekin egoteko aukera eskaintzea, eta horrekin guztiarekin gozatzeko. Asko gainera! Hori dela eta, udalerriko taldeei beraiekin elkartzeko eta partekatzeko aukerak eskaintzeko gonbidapena luzatzen diegu. Poz-pozik jardungo dugu elkarlanean.



Kontalariak, hezur-haragizko apalategiak eta berpiztutakoen gordailua

Testuak eta argazki hautaketa: **Javier Arbulu**



Lloyd Cole-k, *Are You Ready to Be Heartbroke* abestian, esaten du:

'Benetan tentetu nahi baduzu, sostengatu liburutegi baten kontra'.

Musikari gutxik kantatu diete liburuek atsedena hartzen duten apalategiei. Ez nau harritzen, zuk nahi duzuna izanda ere, zaila izango da larruarekin & drogekin lehiatzea, femme fatalekin & bihotz-erdbitzailerekin, bizitzaren alde ilunarekin & basatiarekin, eta abesti baterako gai on bat lortzea. Hala ere, hor dago Cole-ren kanta, araua apurtzeko. Zorionez, liburutegi bat ez da liburuak soilik. Batzuek, onak direnak, bizirik aterako direnak (behintzat, besteak baino apur bat gehiago), hezur-haragizko apalategiak dituzte. Apalategi mugikorak, apalategi aldakorak, oraindik gauzak kontatzen jarraitzea merezi duela dioten premisatik abiatzen den ideia ero horretan egituratutako apalategi egongaitzak. Fidagarriak eta hauskaitzak, haien gainean hautsa pilatzen inoiz uzten ez duten horietakoak. Bertan, istorio biziek bakarrik aurkitzen dute beren lekua. Horiek dira liburutegi bat egiten duten apalategiak. Horiek ezean, *liburutegi* deitzen dugun gune horrek ez luke izango inolako zentzurik.

Apalategi ibiltariak. **Kontatuko Didazu Ipuin Bat** programako boluntarioenak bezalakoak. Gauregun, 4 urte geroago, etxera bueltan noala begiak igurtzi beharra eragiten didatenak. Bakoitza bere erara eta bere estiloarekin. Guztiak ezberdinak. Batzuetan besteetan baino zuzenagoak eta, hala ere, modu arraro batean, beti bete-betean asmatzen dutenak, galdera berriak sortaraziz, aztoratzaile sozial berezi bat bezala. Programa honi denbora gehiago eskaini behar izango niokeelako sententzioarekin beti geratzen naiz beti, hala aitortu behar dut; uste dut gehiago zaintzea merezi duela. Zoritxarrez, egunerokotasuna eta daukagun denbora zorrotzak dira, ez dago aitzakiarik.

Zigoitiko Ekonomatoaren Elkarteak

Baina pasa den udazkena ez da bakarrik kontalarien udazkena izan. Itxaroten ez genuen tokian beste hezur-haragizko apalategi batzuk loratu dira. Horixe da **APAL641**aren kasua, hain zuzen ere; Nines eta Zigoitiko Ekonomatoaren Elkarteko gainontzeko pertsonen esfortzuei esker gune berria baitaukagu bertan. Ekonomatoak diru-laguntza baten hondar bat zuen, galtzeko arriskuan zegoena, eta



erabaki zuen gurekin harremanetan jartzea, plan bat prestatzeko: elikaduraz, elikadura-subiranotasunerako aukera berriez eta, oro har, bizitza inkonformistaren korrante batzuetaz hausnartzen duten liburuak erostea. Lan horri esker, gure irakurleek jada berrogeita hamar bat liburu berri dituzte eta, elkarrekin, denborak aurrera egin ahala hazten joango den apala. Lehenengo mugimendu honekin, Liburutegiko asmo zahar bat hasi da betetzen: elkarrekin bakoitzak bere materialez betetako liburuentzako toki bat izatea.

Guk ere espero dugu apalategiak pixkanaka, haragiz, liburuaz betetzen joatea, eta baita hitzaldiz, eztabaidaz edo elkarrekin iritziz interesa sortzen duten edozein jardueraz ere. Udazken honetan **BERPIZTEGIA** edo **BERPIZTUTAKOTAKOEN GORDAILUA** ere ireki genuen; milaka liburu gehiagorekin osatutako liburutegiko funtsa, publikoarentzat irekitako luzapen bisitagarri berria. Txupiren laguntza, adorea eta azken faseko ekimena eskertu behar ditut, horiei esker lortu genuen eta proposatutako egunean inauguratzea: urriaren 31n, Domu Santu egunaren bezperan. Udazkenean izan ziren, Gorbeialdeko euskara zerbitzuaren eskutik, gure Umeen Irakurketa Klubaren 3 saioak, Galtzagorrik antolatuta, eta Mari Garcia Laderok modu bikainean eskainita: tradizioa eta argitaratze-proposamen berriak nahastuta, jolasen bidez, eta oso gomendagarria izan zen iruzkin literarioak lehen hurbiltze bat eginez. Benetako luxua, eta, parte hartu zuten familien harrera onaren

ondorioz, luzatu egingo dena, ikasturte honetan beste 3 saiorekin eta, ziklo berri batekin hurrengoan. Plaza-kopurua mugatua da baina oraindik libre batzuk geratzen dira.

Udazkenean arrakasta handia lortu zuen **Bertso Saio Literarioak**. Jende asko etorri zen eta zoriontsu bueltatu zen etxera. Zergatiak? Andoni Egaña, bertsolaritzaren gaur egungo mitoa, hurbiletik ikusi eta entzun ahal izatea; eta baita Ane Labaka ere, Lizardi Sariaren irabazlea, eta Peru Magdalena distopikoa ere. Eta azkenik, udazkenean, Isabel Ortiz de Erraztiren bisita, No Yoshiichi armaduraren zaharberritzearen gaineko hitzaldia emateko. Isabelek, bere hitzaldia hasi baino lehen, musuzapi zuri bat jarri zuen buruaren gainean, bera Samurai bat izango balitz bezala, bidaia zirraragarrian eraman gintuen Japoniako intra-historiatik Europako 2. Mundu Gerrara eta gerraostera. Samuraien betebeharrak azalduz, beren jantziek osatzen zituzten hamaika material eta ehunak zerrendatuz, eta beren armaduretako tolesen artean poemak gordetzen zituzten gizon eta emakume horien historia pertsonalak kontatuz. Segur aski Roberto Bolaño poetak maite izango zuen. Berak, samurai tradizioa poetetan haragitzen ikusten zuenak, esaten baitzuen: 'Literaturak samurai borrokaren antza du, baina samurai bat ez da borrokatzen beste samurai baten kontra: munstro baten kontra baizik. Gehienetan badaki porrot egingo duela. Porrot egingo duela jakinda borrokatzera irtetera ausartzea: hori da literatura'.

Podologia zerbitzua zabalduko da

55 urtetik gorakoentzat

Izan dituen harrera ona eta sortutako interesa ikusita, Udalak erabaki du Podologia zerbitzua zabaltzea. Ez bakarrik erretiratuentzat; hemendik aurrera, 55 urtetatik gorako guztientzat izango da. Gainontzeko baldintzek berdin jarraituko dute: Zigoitiko Gizarte

eta Kultur Zentroko lehenengo solairuan eskaintzen da eta kontsulta bakoitzaren truke 20 € ordaindu behar dira.

Informazio gehiago (ordutegiak, zitak nola hartu...) behar izanez gero, galdetu zentroko telefono zenbakian: 945 46 44 00

Autobusen ordutegiak

1

ZIGOITIA - VITORIA - GASTEIZ

ZESTAFE	OKOIZTA/ACOSTA	ETXAGUEN	MURUA	LARRINDA	MANURGA	GOPEGI	ERIBE	BURIJAGA	BERRIKANO	APODAKA	ETXABARRI IBIÑA	GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL)	GASTEIZ/VITORIA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>>													
*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	*	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26
*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	*	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56
*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	*	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26
*	*	14:30	14:33	14:35	*	14:38	14:41	*	14:44	14:48	14:55	14:57	15:06
*	*	16:00	16:03	16:05	*	16:08	16:11	*	16:14	16:18	16:25	16:27	16:36
*	*	18:40	18:43	18:45	*	18:48	18:51	*	18:54	18:58	19:05	19:07	19:16
*	*	21:00	21:03	21:05	*	21:08	21:11	*	21:14	21:18	21:25	21:27	21:36
						22:05					22:14	22:16	22:25
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>>													
*	*	9:55	9:58	10:00	*	10:03	10:06	*	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31
*	*	12:45	12:48	12:50	*	12:53	12:56	*	12:59	13:03	13:10	13:12	13:21
*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	*	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31
*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	*	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36

1

VITORIA - GASTEIZ - ZIGOITIA

GASTEIZ/VITORIA	GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL)	ETXABARRI IBIÑA	APODAKA	BERRIKANO	BURIJAGA	ERIBE	GOPEGI	MANURGA	LARRINDA	MURUA	ETXAGUEN	OKOIZTA/ACOSTA	ZESTAFE
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>>													
07:35	07:44	07:46	*	*	*	*	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*
09:05	09:14	09:16	*	*	*	*	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*
13:45	13:54	13:56	*	*	*	*	14:13	*	14:16	14:18	14:21	*	*
15:15	15:24	15:26	*	*	*	*	15:43	*	15:46	15:48	15:51	*	*
18:00	18:09	18:11	*	*	*	*	18:28	*	18:31	18:33	18:36	*	*
20:20	20:29	20:31	*	*	*	*	20:48	*	20:51	20:53	20:56	*	*
21:40	21:49	*					22:00		*	*			
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>>													
09:10	09:19	09:21	*	*	*	*	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*
12:00	12:09	12:11	*	*	*	*	12:28	*	12:31	12:33	12:36	*	*
15:10	15:19	15:21	*	*	*	*	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*
21:15	21:24	21:26	*	*	*	*	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*